



2020KO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

ALDI BATERAKO ATZERRIAN BIZI DIREN HAUTESLE EGOILIARREN BOTO-ESKABIDEA
ORRI LAGUNGARRIA

Orri lagungarri honekin batera doan inprimakia hautesleak bete beharreko eskabide-eredua da, baldin eta **uztailaren 12an** egingo diren hauteskundeetan atzerritik posta bidez bozkatzeko eskubideaz baliatu nahi badu. Horretarako behar den dokumentazioa, eskabide honen bitartez eskatzen zaio Hautesle Erroldaren Bulegoaren probintzia-ordezkaritzari.

NORK ERABIL DEZAKE ALDI BATERAKO ATZERRIAN BIZI DIREN HAUTESLE EGOILIARREN BOZKATZEKO PROZEDURA?

Prozedura horren bitartez bozkatu ahal izango dute hautesleek, baldin eta hauteskundeak deitu ondoren, nazio-lurraldetik kanpo aldi baterako badaude, bozketa-egunera arte ere egoera horretan jarraituko dutela aurreikusten badute eta Kontsulatuko Matrikula erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta badaude.

Eskabidea eta Kontsulatuko Matrikula erregistroan inskribatzea aldi berean egin ahal dira.

Behin postaz bozkatzeko eskatu ondoren, onartzen bada, ezin izango da zuzenean bozkatu.

BOZKATZEKO PROZEDURA

A. ESKABIDEA

Eskabidea Karrerako Bulego Kontsularretan edo Enbaxadako Kontsulatu Sailetan jaso ahal da edo telematikoki deskargatu webgune hauetan: Eusko Jaurlaritzako **www.hauteskundeak.eus** edo Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioko **www.exteriores.gob.es**

Eskabidea Hautesle Erroldaren Bulegoaren probintzia-ordezkaritzari zuzendu behar zaio, hauteslea hautesle-erroldan inskribatuta dagoen probintziako ordezkaritzari.

B. NON AURKEZTU

Eskabidea, beteta eta sinatuta, zuzenean Karrerako Bulego Kontsularrean edo Enbaxadako Kontsulatu Sailetan aurkeztu behar da. Kontsulatuko funtzionarioak hautesleari nortasun agiriaren edo pasaportearen bidez identifikatzeko eskatuko dio, eta Kontsulatuko Matrikula Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta dagoela eta sinadura bat datorrela egiaztatuko ditu.

Karrerako Bulego Kontsularrak edo Enbaxadako Kontsulatu Sailak eskabidea berehala helaraziko du dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoaren probintzia-ordezkaritzara.

C. POSTA BIDEZ BOZKATZEKO ESKATZEKO EPEA

Hauteskundeak deitzen direnetik **ekainaren 13ra arte** eskatu ahal da.

Dena den, **eskaera ahalik eta lasterren egitea** gomendatzen dugu.

D. POSTA BIDEZ BOZKATZEKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA

Dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoaren probintzia-ordezkaritzak hauteskunde-dokumentazioa **ekainaren 16an** bidaltzen hasiko da. Eskabidean adierazten duzun helbidera eta zure izenean bidaliko zaizu.

Dokumentazio hori jaso izanaren agiria interesdunak berak sinatu behar du, nor den frogatu eta gero.

E. POSTA BIDEZKO BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatuaren bidez bidali behar da, uztailaren 8an beranduen.